# 91. NAO - 2012ko maiatzaren 15a

## 9. ORDENANTZA

***ORDENANTZA, DALAREN ZAKURTEGIKO ZERBITZUAREN GAINEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA***

Oinarria.

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

**Zergapeko egintza.**
2. artikulua. Zergapeko egintza zakurtegiko ondoko zerbitzuak emateak sortzen du:

-Zakurrak biltzea, oro har:

-Egonaldiak zakurtegian

**Ordaindu beharra.**
3. artikulua. Zergak ordaindu beharra zerbitzua egitean hasten da. Hori egiten bada alde interesdunak eskaturik, kasu bakoitzerako finkatutako eskubideen ordainketa eska daiteke aurretik.

**Subjektu pasiboak.**
4. artikulua. Zerbitzuei kasu bakoitzean dagozkien tasak, honako hauek ordaindu behar dituzte: eskatzaileak, edo, zuzenean interesdun izanik, zerbitzuaren onura jaso duten pertsonak, edo Udalaren esku-hartzea derrigortu duten egoeren erantzule direnak.

**Tarifak.**
5. artikulua. Ordenantza honen eranskinean heldu dira kasu bakoitzean aplikatu beharreko tarifak.

**Likidazioa eta diru-bilketa.**
6. artikulua. Hona ordainarazpen hauen diru-bilketarako arau bereziak: ordenantza honetako tarifaren arabera sortzen diren tasak Udaltzaingoko diru-bilketa zerbitzuan ordaindu beharko dira. Han ordainketa horien frogagiriak luzatuko dituzte, eta behartuta daude likidatu eta bildutako tasen berri ematera.

**Kudeaketa arauak**
7. artikulua. Udal zerbitzuek bildutako zakurrak atzera eskuratzeko zakurtegira jo behar da eta bertan jaso, betiere tasak ordaindu ondotik.

## 2014KO TARIFEN ERANSKINA – 248.NAON ARGITARATUA - 2013KO ABENDUAREN 27A

| | |
|---|---|
| I. epigrafea. | |
| Zakurrak bildu eta Udalaren zakurtegira eraman, eta zakurtegiko egonaldiengatik aplikatu beharreko tarifak honakoak dira: | |
| –Zakurrak biltzea, oro har. | 23,85 |
| –Egonaldiak zakurtegian (egun bakoitzeko). | 5,70 |